



ALKATETZAREN MEMORIA

2015 urteko Auzo Udalaren kudeaketa honako ildo nagusi hauetan azaldu daiteke:

Zerbitzuen atalean:

Taberna

2015ean tabernaren ustiaketa kontratua amaitu ondoren emakida konkurtsora atera da eta hautagai bakarra aurkeztu da, orain arte taberna ustiatzen aritu den bikotea, hain zuzen.

Tabernaren jabeei alokairuagatik 3 urtez 250 euro hileko ordaindu ondoren, joan den apirilaz geroztik hileroko ordainketari 500 eurora igo da, hitzarmenean adostuta bezala.

Uztailean tabernako terrazan 5 ostegunetan musika emanaldiak egin dira eta oso harrera ona izan dute jende aldetik eta giro polita sortu dute.

Turismoa

3013an Goizueta, Arano, Ereñotzu eta Hernaniko udalen artean Urumea bailaran turismoa sustatzeko asmoz sortu zen web orriaren mantentze lanak egin dira. Sarrera kopuru polita izaten ari da.

Hurtzaindegia

Haur kopurua ez da hazi kurtso hasieran. Hala ere zerbitzuari eutsi egin zaio. 2015-2016 kurtso amaieran aztertu beharko da zerbitzu honen bideragarritasuna.

Artetik ikastaroak

Eskolako umeentzat HUak antolatzen dituen ikastaro eta tailerrak, urtero bezala eman dira eskolan, Auzo Udalaren aurrekontuaren kargura.

Udal lekuak

Aurreko urteetan bezala uda partean haur eta gazteentzako hainbat jarduera antolatu dira gure auzoan, ez bertakoentzat bakarrik, auzoz kanpotik ere etortzen baitira zerbitzu honetaz baliatzeko.

Egiten den eskaintzak harrera ona izaten jarraitzen du eta izan emandakoak gehiago izan dira aurten aurreko urteetan baino.

Gizarte alorreko jarduerak:

Iaz hasitako "Berriketari" izeneko saioek aurten ere indartsu jarraitu dute eta beste jarduera batzuk gehitu dira, hala nola, egun beteko txangoa autobusez Lizarrara.

Aurten ere ez da osatu euskarazko mintza praktikarako taldea.

Ongintza

Astearteroko gizarte laguntzaileak auzo etxean ematen duen zerbitzua finkatuta dago, baina bertara etortzen den pertsonen kopurua ez da hazi. Lehen egin zuen bezala, aurten ere etxez etxeko azterketa egingo du gizarte laguntzaileak beharrak zuzenean ezagutzeko.

2014-2015 kurtsoan ere kasu berezientzako eskola partikularra eman zaie bi ikasleri.



Mediku zerbitzuak

Aurten ere gripearen aurkako txertaketa Auzo etxean bertan egin da eta aurreko urteko kopuru beretsuak erantzun dio deialdiari.

Bihotz-birika arazoengatik sor litezkeen larrialdiei erantzun ahal izateko, ikastaro batzuk antolatu dira. Eskolako irakasleek alde batetik, eta bestetik, hainbat auzotarrek parte hartu dute ikastaro hauetan.

Garraio publikoa

Zuzeneko eskaera bidez antolatzea zuen GFAk garraio publikoa, baina azkenean ez da gauzatu.

Ordutegi aldaketa batzuk egin dira kaleko eskoletako ordutegietara egokitzeko. GFArekin ere akordioa lortu da eskolako umeek igeriketa ikastarorako garraioa antolatzeko.

Eraikuntza eta kale garbiketa eta lorezaintza

Eraikuntza eta kale garbiketak HUko kontrataren barruan daude eta guztira 54.784 euroko kostua izango du Auzo Udalarentzat. Lorezaintza Goroldik egiten du eta 4.002 euroko kostua izango du.

Internet sarea

GipuzkoaSharek wifi bidez Internet sarea hedatzeko antolatu zen proiektuak ez du aurrera egin, baina Arrondon Retevisioren duen antenan ekipoak instalatu ditu Auzo Udalak eta internet seinalea zabaltzen hasia da auzoan urte hasieratik.

Beste ekipo batzuk erosi eta 2016 urtean Ugaldetxoko antenatik eremu zabalagoan hedatuko da seinalea.

Ordenagailu gela

Internet sarea etxeetara erabat zabaltzeko ez denez, hainbat auzotar inguratzen da bertara.

Kirol jarduerak

Aurten ere antolatu da mendi lasterketa eta helburuak partaidetza eta antolakuntza aldetik oso ondo bete dira.

Pilota lekuaren ordukako erabiltzaile kopurua egonkortu egin da eta 2015-2016 denboraldirako 12 ordu hartu dira. Horretaz gain, Hernaniko Pilota Elkarteak asteleheneetik asteazkenean 6etaik 7etarako ordua erabiltzen du alebintzako.

Federatu gabeentzako pala txapelketa jokatu da aurten eta auzoko gizonezko eta emakume ugarik hartu du parte.

“Burbunak eta Etsaiak” proiektua

Aranzadi eta Doberak 2013an hasi zuten bertako animalia eta landareen izenak berreskuratzeko proiektua. Horretaz gain, bertako euskeraren ezaugarriak jasotzeko baliatu dute proiektua. Hainbat elkarrizketa eta grabazio egin ondoren azaroan dokumentalaren aurkezpena egin da Ereñotzuko elizan.

Jende kopuru polita bildu zen eta dokumentalak oso harrera ona izan du. Oraingoan, 300 CD editatu dira.

Ereñotzuko Auzo Udalak proiektu horretara aurten bideratu duen kopurua 4.424 eurokoa izan da.

2016ean lan ildo honek jarraipena izango du, besteak beste, Harrapazka Egunak proiektuarekin. Auzo Udalak bere babesa ematen jarraituko du.

Urumea Kronika

Auzo Udalak Doberarekin sinatutako hitzarmenaren arabera 3.000 euroko ekarpena egin du eta 2016an ere jarraipena izango du. Datorren urtera begira elkarlana hobetzeko bilera batzuk ere antolatu dira.



“Olak” Auzo Elkarte

Aurreko urteetan bezala, Auzo Elkartearen jarduera finantzatu du (16.500 euro) Auzo Udalak, elkarte honek funtzio aproposa betetzen baitu auzoko zerbitzuak hobetzen. Auzo Elkartearen bitartez bideratzen dira hainbat antolaketa eta jarduera, esate baterako, San Antonio jaiak, Udazken Kulturala, Udalekuak, ludoteka, yoga, aerobic, haurtzaintza eta “Berriketan” taldea.

2016rako aurrekontua egokitu egin beharko da, elkarteak ematen dituen zerbitzuen gastuak igo egin dira eta.

Mantentze lanak

Aurten egin diren lanik aipagarrienak izan dira bide konponketak (7.292 euro), Epeleko parkeko toloa eta argiteria (6.601 euro) eta eskolan egin direnak (5.119 euro).

Inbertsioetan

Ereñotzu behealdeko ur zikinak kolektorera bildu eta ingurua egokitzeko lanak bi fasetan burutu dira. Lehenengoa 2015 urte hasieran bukatu zen eta bigarrena udazkenean. Airosa etxeko ur zikinak biltzeko ere aprobetxatu da proiektua. 2014ean 53.609 euro erabili zituen Auzo udalak eta 2015ean, 321.457. Guztira, 375.066 euro.

Lan horiekin batera, Ereñotzuko auzunean bi zebra bide konkordunak jarri dira: bat Txilibita baserri aurrean eta bestea autobus geltoki inguruan. Eta gainera, beste konkor zabal bat futbol kanpo parean. Lan hauen kostua, 25.546 euro, Auzo Udalaren gain izan dira, baina konkoren neurri eta ezaugarriak GFAk araututa.

Horretaz gain, Fagollagako auzotarrek Auzo Udalarekin hitzarmenak adostu eta sinatu ondoren, GFAk auzune horretan trafikoa mantsotzeko proiektua onartu zuen 2014ean. Horretarako, espaloi zati batzuk eraiki dira eta gune batean 70 mko txandakako pasabidea geratu da. 2015 urte bukatu dira lanak eta kostua GFAk hartu du osorik bere gain.

Aurrekontua

Ereñotzuko Auzo Udalaren 2015eko aurrekontua

Ereñotzuko Auzo Udalaren sorrerako Foru Dekretuak markatutakoaren arabera, 2015eko aurrekontua 356.669,00 €koa izan da oinarrian:

Pertsonala, zerbitzuak eta gastu arrunta	263.980,00
Inbertsioak	92.689,00

Horretaz gain, iazko gerakinak (87.178,00), tasak (5.700,00), Ereñotzuko urbanizazio proiektuagatik GFAREN (17.400,00) eta EJren Erein (39.021,00) diru laguntzak, 2014tik egindako kreditu aldaketak (57.311,00) eta azkenik, HUK gaitutako kreditutik aurreikusitakoak (58.709, 00) batu ondoren, aurrekontua guztira 621.697,00 eurokoa izan da.

Ereñotzuko Auzo Udalaren 2015ko gastua

Urtea amaitu arteko aurreikuspena hauxe litzateke:

Pertsonala	38.326,00
Gastu arrunta	171.092,00
Inbertsioak	349.003,00
Guztira	558.421,00
Aurreikusitako gerakina	63.276,00
Aurreikusitako mailegua	57.311,00 (ez litzateke erabili beharrik izango)
Aurreikusitako emaitza	5.965,00



Urtero bezala, fondo foraleko likidazioa Ereñotzuko Auzo Udalari honela aplikatuko zaio:

EAUeko sarrera arruntak

----- x HUri aplikatutako desbideratzea

HUeko sarrera arruntak

Kontuak oraindik itxi ez badira ere, zorrik gabe bukatuko dugu urtea.

Ereñotzun, 2015eko azaroaren 27an

Imanol Lizeaga Urdanpilleta

Auzo alkatea